

## FAUNA PUBLIKOA

**“Guk ere erraztuko genuke herritarren parte-hartzea autodeterminazio ariketa batean”**

**EH Bilduko alkateak (Naiz.eus)**

## Baldintza eta subjuntibo



**Gorka Bereziartua Mitxelena**  
@boligorria



AliExpress-en Kataluniako independentismoa erosi zenuen; etxera iritsi eta kaxatik atera duzunean, ordea, murrta okertu zaizu: ez, ez zen hau. Zeren hau da gure gaur egungo independentismoa, produktu bat Kataluniakoaren antza izan dezakeena ilusio pixka bat duenarentzat, baina emozioak beste tenperatura batzuetan dauzkana sentiarazten duena Michael Douglas *Falling Down* filmean bezala, sartzen denean hanburgesian eta bertako langileei edukazioz eskatzen dienean –bueno, edukazioz: KG9 subfusil bat eskuan edukitzeak uzten duen neurrian–, konparatze-ko nolako hanburgesak iragartzen dituzten afixetan eta nolakoak zerbitzatzen dituzten gero. Eta klaro, konparazioa kabroia da.

Bueno, ba EH Bilduko alkateen Big Mac honekin igual: udaletxeko terrazan bazkaltzen duzunean piperpotoko saltsa derrigorrezkoa izateak mokadua garrazten du.

Nahi bai gure independentismoa ikusi hangoa bezala gihar guztiak punpaka, irribarre demokratikoa galdu gabe desafiitzen Espainiako Estatuaren demofobia, nazioarteko begiradak erakartzen, bide batez munduari erakutsiz nola funtzionatzen duten egunerokoan normal-normal hizkuntza gutxiagotu batean. Baina ez gaude horretan. Eta ez gaudenez horretan, halako adierazpenek kartoi-harrizkoak dirudite elkertasunetik haragoko terrenoetan sartzen hasten direnean, hutsik jarraitzen dutelako “genuke” bakoitzaren aurreko “bagenu”, “balitz” eta “bagina” osagaiek.

Bada tartea baldintzatik subjuntibora –“guk ere erraztu dezagun herritarren parte-hartzea autodeterminazio ariketa batean”–, zer esanik ez indikatibora –“guk ere erraztu dugu...” etc.– eta hemengo dantza, momentu honetan, mamboa baino gehiago da *Despacito*. ■

**EZ HANKA EZ BURU!**



ADUR